

.....//.....

**Bilera mota:** Ezohiko Udal Osoko Bilkura.

**Data:** 2015-06-13 (larunbata)

**Ordua:** Goizeko 10:00etan.

**Lekua:** Udaletxeko Batzar Aretoan

**Erreferentzia:**E-15-05

---

Honen bitartez eta alkate jaunaren aginduz, aipaturiko ordu eta lekuan egingo den Ezohiko Udal Osoko Bilkurarako deialdia luzatzen dizut.

Ezkio-Itsaso, 2015eko ekainaren 10a  
Idazkari-kontuhartzailea

---

## **EGUNEKO GAI ZERRENDA**

### **1.- UDAL BERRIA ERATZEA ETA ALKATEAREN AUKERAKETA.**

.....//.....

**0-E-15-05:EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA**

.....//.....

## **2015EKO EKAINAREN 13KO UDAL OSOKO BILKURA**

Ezkiio-Itsason, bi mila hamabosteko ekainaren hamahiruan.

Egun honetako goizeko 10:00ak direnean, Udaletxeko Areto Nagusian Udal Osoko Bilkura biltzen da.

Bertaratu direnak (denak daude).

- Garikoitz Aiesta Etxaniz (EIK).
- Jose Ignacio Etxezarreta Estala (EIK).
- Ander Unzurrunzaga Idiakez (EIK).
- Gorka Sasieta Barrenetxea (EIK).
- Mikel Igartua Anduaga (EIK).
- Maria Luisa Pildain Cenitagoya (EIK)
- Jose Maria Barrenetxea Aldanondo (EIK).

### **AZTERGAI**

### **ZERRENDA**

## **1.- UDAL BERRIA ERATZEA ETA ALKATEAREN AUKERAKETA.**

### **A.- Adineko mahaia eratzea**

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. artikulua dionari jarraituz, Hauteskunde batzordeak udaletxera bidalitako zinegotzi-ziurtagiriak Idazkaritza Orokorrean jaso ondoren, bertaratutako zinegotzietan zein den gazteena eta zein zaharrena aztertu da, bi zinegotzi horiek adineko mahaia osa dezaten, udal-idazkariarekin batera.

.....//.....

.....//.....

## **Erabakia**

Adineko mahaiak era honetan osatzea:

Zinegotzirik zaharrena: Mikel Igartua Anduaga.

Zinegotzirik gazteena: Garikoitz Aiesta Etxaniz.

Idazkaria: Martin Iparragirre Mujika.

## **B.- Udala eratzea**

Adineko mahaiak, eskualdeko Hauteskunde batzordeak udaletxera bidalitako zinegotzi-ziurtagiriak aztertu ditu.

Ziurtagiri hauek ondo daudela ziurtatu ondoren, zinegotziek araututa dagoen modura, eta adieraziz formula hori erabiltzen dutela legeak horrela beharturik, zin egin dute.

## **Erabakia**

Zinegotzien gehiengo osoa osoko bilkuran dagoela, adineko mahaiak Udala eratutzat jo du. Hona hemen zinegotzien zerrenda:

- Garikoitz Aiesta Etxaniz (EIK).
- Jose Ignacio Etxezarreta Estala (EIK).
- Ander Unzurrunzaga Idiakez (EIK).
- Gorka Sasieta Barrenetxea (EIK).
- Mikel Igartua Anduaga (EIK).
- Maria Luisa Pildain Cenitagoya (EIK)
- Jose Maria Barrenetxea Aldanondo (EIK).

.....//.....

.....//.....

Jarraian, idazkariak Udaltzari aurkeztu dio Udalak dirutan nahiz baloretan dituen izakinen egiaztagiria.

### **3.- Alkatea aukeratzea**

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196. artikuluari jarraiturik, adineko mahaiak alkatea aukeratzeko baldintzak gogorarazi ditu:

- “Zinegotzi diren zerrendaburuak dira hautagai, kasu honetan Garikoitz Aiesta Etxaniz da hautagai bakarra.
- “Lehen bozketan, zinegotzi guztien gehiengo osoa lortzen duena izango da alkate”.
- “Horrela gertatzen ez bada, udal-hauteskundeetan gehien bozkatutako zerrendako buru den zinegotzia izango da alkate”.

Jarraian isilpeko bozketari ekin zaio, eta hona hemen emaitza:

- Garikoitz Aiesta Etxaniz zinegotziak 7 boto.

### **Erabakia**

Bozketak erakusten duenez, Garikoitz Aiesta Etxaniz da alkate.

Hautatuak onartu egin du alkate izatea, eta Udaltzari aurrean duela, agindu ere agindu du kargu hori beteko duela, kargu horrek berekin dakartzan ahalmen, eskubide eta betebeharrak guztiekin, eta ondoren araututa dagoen modura, eta adieraziz formula hori erabiltzen duela legeak horrela beharturik, zin egin du.

Kargua hartu ondoren alkateak hartu ditu gaur egun udalerrri honetan dauden makila desberdinak eta udalerrriaren egoeraren adierazgarriak direnak, hau da Ezkioko aginte-makila, Itsasoko aginte-makila eta gaur

.....//.....

.....//.....

egun indarrean dagoen Ezkio-Itsasoko aginte-makila. Hiru makilak hartu ondoren esan du gaur hasten dugun 2015-2019 legealdi berri hau Udal honen etorkizunerako berezia izango dela, historikoa izango dela, batez ere abian delako dagoeneko ia denek ezagutzen duten Ezkio-Itsaso banantzeko prozedura, Itsasoko herritarrek bultzatuta. Hori horrela bada ere gogorarazi du zinegotzi guztien aldetik dagoen konpromisoa Ezkio-Itsaso udalerrri bakarra den bitartean ahalegin guztia egiteko Ezkio-Itsasotarren interesak defendatzeko, azkenean Ezkio-Itsaso banantzeko erabakitze eskubidea ez dela Udalarena baizik eta Gipuzkoako Foru Aldundiarena eta momentu hori iristen bada ordutik aurrera ikusi beharko dela zer errealitatea izango duten Ezkiok eta Itsasok. Jarraitu du esanez baita historikoa izango dela, hainbat hamarkada eta gero helburu horren atzetik borrokan ibili ondoren, lortu delako egoera ekonomikoa zaila dagoenean Herri Eskola izatea eta irailaren 9an Herri Eskola era definitiboan martxan jarriko delako, historikoa baita ikasturte honetan 10 ume egon badira ere, datorren ikasturtean 19 ume izango direlako. Historikoa izango da baita ere hamaika borroka, buruhauste eta arazo sortu ondoren batez ere herritarrei eta baita Udalari, 2015 urtean bertan AHTko plataforma lanak amaituko direlako. Atal honetan azpimarratu nahi izan du Tomas eta Mari Josek alkateak izan zirenean beraien taldeekin batera proiektu honen inguruan egindako lana, eta ETSrekin elkarlanean aritzeko lortutako akordioa; eskerrak eman dizkie hori dena baliogarria izan delako suertatu diren arazoei aurre egiteko eta elkarlana bultzatzeko, nahiz eta gauzak hainbat unetan ez diren batere errazak izan. Partehartzean sustatuko herri batean sinisten dugu, eta momentu oro herritarren esanetara irekita egongo gara. Historikoa baita ere Hirigintzako Plan Orokorra egiteko lanak burutuko direlako eta onartzeko bidean jarriko direlako; ez dira plan Orokor Arruntak izango, lan hau egiteko garaian garbi markatuko da helburua hirigintza sustatzea baino gehiago landagintza eta lur eremu ez urbanizagarrien defentsaren alde burubelarri jardungo dela. Herritarren beharrak entzun, kontuan hartu eta ahal den neurrien horiek ahalbidetzen ahaleginduko gara.

Hamaika proiektu dauzkagu, asko martxan jarrita bai Udalaren ikuspuntuak, baita mankomunitateko ikuspuntuak, denen artean eskualdetik bultzatutako BERTATIK-BERTARA proiektua azpimarratu

.....//.....

.....//.....

du, agintaldi berrian estrategikoa izango dena zeren eta nahiz eta lehen sektorean oinarrিতuta egon, areago joan eta turismoa, denda txikiak, ostalaritza, jangela, eta abar ere ukitzen dituelako.

Talde berri honek duen faktore positiboa batetik taldearen esperientzia eta bestetik gaztetasunak ematen duen freskotasuna du eta biak uztartuz emaitzak lortuko dira..

Bestalde, eskerrak eman gaur gure artean ez dauden, Tomas Etxaniz (bera izan zen aurreko legegaldiko hasierako alkatea), Lourdes, Ruth, eta Enekorri; esker berezia eman ,hainbat hilabeteetan idazkari-kontuhartzaile izan zen Gotzon Goikoetxea jaunari ,kasu honetan eta berari dagokionez ikaragarri erakutsi ziolako; eskerrak herritarrei Ezkio eta Itsasotarrei , ez bakarrik bozketan emandako babesegatik, baizik eta egunerokotasunean ematen duen laguntzagatik; eta eskerrak eman azkenik eguneroko funtzionamenduan pertsona klabeak direlako Udal langile, funtzionario, eta abarri.

Hemendik aurrera badugu lana, egin dezagun ahal den hobekien, eta Ezkio eta Itsasotarren interesak defendatu ditzagun, mila esker.

Udal Osoko Bilkura 10:45ak direnean amaitu da, eta agiri hau egin dut lehendakariak ontzat emanik, eztabaidatu eta erabakitakoa jasotzeko.

Ezkio-Itsaso, 2015eko ekainaren 13a

O.E.  
LEHENDAKARIA

IDAZKARIA

.....//.....